


• MATTIN •



Ni ez naiz Lapueblara joango

• JON ARRETXE •

[IDAZLEA]

Ni ez naiz igandean Lapuebla de Labarkan egingo den Araba Euskaraz-era joango. Irakaskuntzan euskarazko ereduak guztiz zabaldua dauden sasoi honetan, irakaskuntza pribatu nahi duenak bere poltsikotik ordain dezala eta bestela umeak eskola publikora eraman ditzala. Gainera, Arabar Errioxako ardogileak ondo dirututa daude eta ez dute laguntzarik behar.

Horrela erantzun zidan, gutxi gorabehera, lagun batek igandean Araba Euskaraz jaira joatea proposatu nioenean eta pentsakor utzi ninduen. Ba ote dauka arrazoirik? Lehengo asteburuan Elorrión izan nintzen Ibilaldiko giroaz gozatzen eta zalantza berdintsua izan nuen gogoan: Durangaldeko ikastola pribatuek behar edo merezi dute euskaltzale guztion diru laguntza irakaskuntza publikotik kanpoko proiektu bat aurrrera eramateko, eskualde, horretan eskola publikoa guztiz finkatuta dagoela jakinda?

Aspaldi honetan gero eta eztabaidatuagoa da kontu hori eta Ibilaldian edo Kilometroetan horrelako zalantzak izateari ulergarria deritzot, baina Araban

egiten den jaiaren zentzua bestelakoa izan behar duela uste dut, are gehiago egotzera politiko berriari eta aurten aukeratutako herriaren kokaguneari erreparatuta. Lapuebla de Labarka Arabako Errioxan dago, Euskal Herriaren hegoaldeko azken muturrean, Logroño hiriburutik hogeitabat kilometro; herrian ez dago beste eskolarik eta eskualde osoko umeek Lapueblako ikastola dute aukera bakarra euskarazko irakaskuntza osoa eta kalitatezkoa jasotzeko.

Bestalde, inguruko politikari eta erakunde gehienak euskararekiko arduragabekeria erakutsi dute orain arte eta hemendik aurrera, hauteskunde enaitzak ikusita, susmoa daukat egoera ez ote den gaiztotuko, ez ote gauden euskararen kontrako gurutzada baten atarian, arerioak harrotuta baitaude.

Arazo ekonomiko itzelak eiz dauzka Errioxan euskararen berpizkunde eta zabalkundearen sustatzaile nagusia izandako

Assa ikastolak, eta hemendik aurrera seguruenik trabak baino

Eskualde osoko umeek Lapueblako ikastola dute aukera bakarra euskarazko irakaskuntza osoa eta kalitatezkoa jasotzeko

konbentzimendu berdina erakutsiz.

Arazo larriago bat ikusten dut nik: Araban, orokorrean, hemendik aurrera biziko den aldi erabakigarria euskararen etorkizunari dagokionez. Hurrengo hila-bete eta urteetan inoiz baino tinkoago eutsi beharko diogu geure hizkuntzaren defentsari, eta uste dut momentu honetan inoiz baino garrantzitsuagoa dela nagikeria uxatu eta igandean Lapueblaraino joatea, euskararen etsai harropuztuei gure jarrera finkoa erakustearren. Errioxako ardogileei dirurik oparitu nahi ez dienak etxetik eramanezala ogitartekoa, baina elkar gaitzezen euskaltzale guztiok Euskal Herriaren azken mugan, Ebroren bazterrean, euskaraz bizi nahi dugula ozen-tasunez oihukatzeke. Ni behintzat, gaur Lapueblara joango naiz.

••• INMA ERREA



Hamaika ikasteko jaio gara

Gure gurasoen kezka nagusieta-riko bat haien haurrei —guri— sexuaren inguruko azalpenak nola eman —edo, hobeki esanda, nola ez eman— izaten zen. Nik monja ikastetxe batean ikasi nuen, eta han gusaroez —bazarrean bilduta— heziketa sexuala aditu baten eskuetan uztea erabaki zuten. Ikasleok ez genuen ia ezer entenditu, adituaren hizkera zientifiko-tenikoari esker, eta beste hainbat bidetara jo genuen, argibide bila.

Ez dut esanen gauzak arras aldatuak direnik gai horretan, ez baita egia, baina niri, gurasoen zereginetan, sexuari buruzko azalpenak eman behar izatea *super-erraza* iruditzen zait, eman beharreko beste zenbait argibideren aitzinean.

Esate baterako, askoz gogorrago da niretako egun diren gerra eta gatazken inguruko galderei erantzun behar izatea, gaiztoen eta zintzoen ohiko bereizketa sinplean erori gabe.

Beste zenbait afera ere mamitsu izaten da: oilo belgiarren kontua, adibidez. Haurrek —gutxienez, gurean— hagitz interes handia agertu dute horretaz (eta, alajaina! orain Coca-Colarena heldu da). Aferak haurren zuzeneko esperientziarekin du zerikusia: egunero jaten dituzte oilaskoa, arraultzak eta beste anitz elikagai, eta hainbatek, gutxienak badira ere, oiloak bizirik ikusi ahal izan dituzte, nonbait.

Haurrek, XX. mendearen hondarretan ez dute galdu hamaika galdera egiteko aztura osasuntsua. Nik ere *kazetari* ospea irabazi nuen, bospasei urte nituela, horrela ibiltzeagatik. Helduengan galderak saihesteko tentazioa handia da, eta aspaldiko eredu —hau da, ez erantzutearena— errepikatzeko arriskua, izugarria. Munduak abiada bizia hartu du, eta haurrei azalpenak ematea beti bezain neketsua da.

Igandean, seme-alabekin joan ginen botoa ematera, eta den-dena arreta handiz behatu ondoren, hauteskundeak zer ziren galdetu zuten; datozen urteetarako *agintariak* hautatu behar genituela esatean, alabak esan zigun: «Seguraski, guri ez zaigu tokatuko». Horren aurrean, ea nor den gauza haur bati azaltzeko, labur eta zehatz, zozketen eta hauteskundearen arteko alde... Ni ez, behintzat.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Barkamenik ez

■ Munduko agintari nagusiek, G-7 klubekoek, Alemanian bildu eta denbora izan dute, alde batetik, Kosovon Errusiako Armadari dantzaldirako toki bat egiten, inork dantzakide nahi ez zuen *itsusia* izan arren. Eta bestetik, estatu txiroenen kanpo zorra barkatzea erabaki dute!!! Oi arima eskuzabal eta errukarriak. Kanpo zorraren zati bat bakarrik, baina betiere barkatu. Harritzko bihotzak ere urtuko ditu erabakiak (herriar pobreenenak ez, seguruenik, bihotza ere ebatsi baikenien aspaldi, orain barkatzen diegun zorra ordainean utziz). Neurria neronek ere eskatua da lehen, eta, beraz, zoriondu egin beharko nituzke boteretsuak, betiko erasia merkeak alde batera utzita. Hasteagatik bederen. Baina ez. Zorra barkatzearena ez da helmuga; hainbaten arteko neurri bat baizik. G-7 urrutiti da bil oraindik. Ez dira hain onak benetan...